



Memoria
2016

**Kabia foru organismo autonomoko Gobernu Batzordeak
onartua**

Donostia, 2017ko apirilak 28

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| 1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK | 1 |
| 1.1. ZERBITZUAK | 1 |
| 1.2. ERABILTZAILEAK | 1 |
| <i>a) Erabiltzaileen profila.....</i> | <i>1</i> |
| <i>b) Errotazioa.....</i> | <i>3</i> |
| <i>c) Okupazioa.....</i> | <i>4</i> |
| 1.3. LANGILEAK ETA ZERBITZU ENPRESAK | 4 |
| <i>a) Plantillako langileak.....</i> | <i>4</i> |
| <i>b) Zerbitzu enpresak eta bere langileak.....</i> | <i>4</i> |
| 2. KABIA: BATERATZE PROZESUA..... | 6 |
| 2.1. BATZAR NAGUSIETAKO MANDATUA..... | 6 |
| 2.2. BATERATZE PROZESUA, EREDUA, EGUTEGIA ETA PLAN EKONOMIKOA ADOSTEKO LANKETA | 6 |
| <i>a) Kabiako misioa, bisioa eta plan estrategikoko ildoak.</i> | <i>7</i> |
| <i>b) Kabiako eredia: asistentziala eta antolaketakoa.</i> | <i>8</i> |
| <i>c) Udal egoitzak Kabiara sartzeko egutegia.....</i> | <i>9</i> |
| 3. KUDEAKETA PLANA..... | 9 |
| 4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA..... | 17 |
| 4.1. GASTUAK..... | 17 |
| 4.2. DIRU SARRERAK..... | 18 |

1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK

1.1. ZERBITZUAK

2016an Kabiak ondorengo zerbitzuak kudeatu ditu:

| EGOITZA | OINARRIZKO PLAZAK | UPSI PLAZAK | EGOITZAKO PLAZAK GUZTIRA | EGUNEKO ZENTROA PLAZAK | TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK PLAZAK |
|----------------|-------------------|-------------|--------------------------|------------------------|------------------------------------|
| AZKOITIA | 54 | 14 | 68 | 20 | 12 |
| ELGOIBAR | 48 | - | 48 | - | - |
| VILLABONA | 39 | - | 39 | 4 | - |
| ZUMAIA | 52 | - | 52 | - | - |
| GUZTIRA | 193 | 14 | 207 | 24 | 12 |

Villabonako egoitzan dauden 39 plazetatik, 7 hitzartu gabe egon dira 2016.urtean. Plaza horiek aldi baterako egonaldietarako erabili dira.

1.2. ERABILTZAILEAK

Kabiako erabiltzaileen profila honakoa da: 84 urteko emakumea, mendekotasun handia duena.

a) Erabiltzaileen profila

Kabiak artatzen dituen pertsonen artean %66a emakumeak dira.


| ZENTROA | ERABILTZAILE KOPURUA (ZERBITZU ETA SEXUAREN ARABERA) | | | | | | | |
|----------------|--|------------|-------------|------------|------------------------|------------|------------------------------------|--------------|
| | OINARRIZKO PLAZAK | | UPSI PLAZAK | | EGUNEKO ZENTROA PLAZAK | | TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK PLAZAK | |
| | E | G | E | G | E | G | E | G |
| AZKOITIA | 52 | 30 | 16 | 7 | 20 | 8 | 2 | 5 |
| ELGOIBAR | 40 | 20 | - | - | - | - | - | - |
| VILLABONA | 27 | 16 | - | - | 4 | 0 | - | - |
| ZUMAIA | 48 | 20 | - | - | - | - | - | - |
| GUZTIRA | 167 | 86 | 16 | 7 | 24 | 8 | 2 | 5 |
| | %66 | %34 | %70 | %30 | %75 | %25 | %28,6 | %71,4 |

(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Erabiltzaileen batz besteko adinari dagokionez, emakumeak gizonak baino zaharragoak direla nabarmentzen da.

| ZENTROA | BATAZ BESTEKO ADINA | |
|--------------------------------------|---------------------|-------------|
| | E | G |
| AZKOITIA EGOITZA | 87,3 | 85,0 |
| AZKOTIA EGUNEKO ZENTROA | 80,0 | 77,5 |
| AZKOTIA UPSI | 88,1 | 86,4 |
| AZKOITIA TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK | 80,0 | 77,0 |
| ELGOIBAR EGOITZA | 85,0 | 81,0 |
| VILLABONA EGOITZA | 84,6 | 85,6 |
| VILLABONA EGUNEKO ZENTROA | 86,2 | - |
| ZUMAIA | 86,0 | 78,0 |
| GUZTIRA | 84,6 | 81,5 |

Menpekotasun graduaren arabera, mendekotasun larria eta handia dutenen proportzioa handiagoa dela ikus daiteke.



Grafikoko datuak zentro, zerbitzu eta sexuaren arabera berezituz gero, kopuruak honakoak dira:

| ZENTROA | AUTONOMOAK (0) | | NEURRIZKO MENDEKOTASUNA (1) | | MENDEKOTASUN LARRIA (2) | | MENDEKOTASUN HANDIA (3) | | GUZTIRA |
|---------------------------|----------------|----------|-----------------------------|-----------|-------------------------|-----------|-------------------------|-----------|------------|
| | E | G | E | G | E | G | E | G | |
| AZKOITIA EGOITZA | - | 2 | 3 | 2 | 25 | 16 | 25 | 9 | 82 |
| AZKOTIA EGUNEKO ZENTROA | - | - | 4 | 1 | - | - | 16 | 7 | 28 |
| AZKOTIA UPSI | - | - | - | - | - | - | 16 | 7 | 23 |
| AZKOITIA TUTORETZ. APART. | 2 | 3 | 0 | 1 | - | - | - | 1 | 7 |
| ELGOIBAR EGOITZA | - | 1 | 1 | 2 | 17 | 12 | 19 | 8 | 60 |
| VILLABONA EGOITZA | - | 2 | 2 | 6 | 4 | 3 | 21 | 5 | 43 |
| VILLABONA EGUNEKO ZENTROA | - | - | - | - | 3 | - | 1 | - | 4 |
| ZUMAIA | - | - | 2 | 3 | 28 | 15 | 18 | 2 | 68 |
| GUZTIRA | 2 | 8 | 12 | 15 | 77 | 46 | 116 | 39 | 315 |
| | %0,6 | %2,5 | %3,8 | %4,8 | %24,4 | %14,6 | %36,8 | %12,4 | %100 |

b) Errotazioa

Zerbitzu bakoitzean egon diren altak (sarrerak) eta bajak (irteerak) ondorengo taulan jasotzen dira:

| ZENTROA | SARRERAK | | | IRTEERAK | | |
|-------------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| | E | G | GUZTIRA | E | G | GUZTIRA |
| AZKOITIA EGOITZA | 19 | 9 | 28 | 21 | 10 | 31 |
| AZKOTIA EGUNEKO ZENTROA | 7 | 5 | 12 | 9 | 2 | 11 |
| AZKOTIA UPSI | 7 | 2 | 9 | 5 | 4 | 9 |
| AZKOITIA TUTORETZ. APART.. | 2 | 2 | 4 | 0 | 0 | 0 |
| ELGOIBAR EGOITZA | 5 | 7 | 12 | 6 | 6 | 12 |
| VILLABONA EGOITZA | 6 | 5 | 11 | 6 | 5 | 11 |
| VILLABONA EGUNEKO ZENTROA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ZUMAIA | 11 | 5 | 16 | 14 | 2 | 16 |
| GUZTIRA | 57 | 35 | 92 | 61 | 29 | 90 |
| | %62 | %38 | %100 | %68 | %32 | %100 |

Zerbitzua uztearen arrazoiak heriotza, beste zerbitzu edo egoitzara aldatzea edo borondatez zerbitzua uztea izan dira. Arrazoi guztien artean heriotza izaten da nagusitzen dena.

c) Okupazioa

Zentro bakoitzeko zerbitzuen okupazioa honakoa izan da:

| ZENTROA | ZERBITZUETAKO OKUPAZIOA % | | | |
|-----------|---------------------------|-------------|------------------------|--|
| | OINARRIZKO PLAZAK | UPSI PLAZAK | EGUNEKO ZENTROA PLAZAK | TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK PLAZAK (*) |
| AZKOITIA | %98,7 | %99,2 | %83 | %58 |
| ELGOIBAR | %98 | - | - | - |
| VILLABONA | %98,8 | - | %100 | - |
| ZUMAIA | %99,4 | - | - | - |

(*) Tutoretzapeko apartamentuak udal eskumeneko zerbitzuak dira.

Villabonako egoitzan, oinarrizko plazetako okupazioa 98,8% izan da. Aldi baterako plazen okupazioa, aldiz, %30,5ekoa.

1.3. LANGILEAK ETA ZERBITZU ENPRESAK

a) Plantillako langileak

Kabian plantillako sei langile daude. Zerbitzu zentralerako hiru eta Zumaiako beste hiru. Zumaiako hiru langileak 2016ko urtarrilaren batetik dira Kabiako plantillako langileak.

Sei langile horietatik, lau emakumeak dira eta bi gizonak:

- Kabiako zerbitzu zentralak: 2 emakume (gerentea eta administraria) eta gizon 1 (ekonomilaria).
- Zumaiako egoitza: 2 emakume (gizarte langilea-zuzendaria eta administrari laguntzailea) eta gizon 1 (sukaldaria).

b) Zerbitzu enpresak eta bere langileak

Kabiako egoitzetan bost zerbitzu enprekin zerbitzu kontratuak daude:

- Elgoibar eta Azkoitiako egoitzetan, Biharko Gipuzkoa SL enpresa dago egoitzaren kudeaketan.
- Villabonako Santiago egoitzan Aita Menni Zerbitzu Sozialak SL Enpresa dago 2016ko urriaren 1etik. Ordura arte Geriátrica Catalunya enpresak kudeatzen zuen, Villabonako Udalak hainbat zerbitzu eta gastu bere gain hartzen zituelarik: gizarte langilea, mantenua eta konponketak, energia elektrikoaren hornidura eta bestelako gastuak. Egikor elkartearen bidez zerbitzu psikosozialak ematen ziren.

- o Zumaiako San Juan egoitzan, aldiz, Eulen Servicios Sociosanitarios S.A. (asistentzial zerbitzuak eta zerbitzu osagarriak), Sesosgi (erizaintza zerbitzua) eta Lahar Elkarreak (zerbitzu psikosoziala) kontratu zerbitzuak dituzte.

Enpresa horien bitartez guztira lanaldi osoko 162 langile baliokide daude (langile kopuru erreala handiagoa da lanaldi osoak ez dituztelako kasu guztietan). Horietako %91a emakumeak dira. Gizonak, daudenean, eginkizun ez-asistentzialetan (mantenua, konponketak, sukaldaritza, biltegia, etb.) jarduten dira.

Jarraian dagoen taulan banaketa hori argiago agertzen da:

| ZENTROA | E | G | GUZTIRA |
|----------------|-----|----|---------|
| AZKOITIA | 52 | 4 | 56 |
| ELGOIBAR | 33 | 2 | 35 |
| VILLABONA | 29 | 4 | 33 |
| ZUMAIA | 34 | 4 | 38 |
| GUZTIRA | 148 | 14 | 162 |
| | %91 | %9 | %100 |

2. KABIA: BATERATZE PROZESUA

Kabiari 2015eko ekainaren 6ean, adineko pertsoneri zuzendutako lau udal egoitza kudeatzeko mandatua eman zitzaion Diputatuen Kontseiluko erabakiaren bidez. Gipuzkoako Foru Aldundiak zentroaren gaineko prozedura guztiak bideratzeko behar den denbora hartu ahal izateko, Udalek edo egoitza kudeatzen zuten organismo autonomoek aipatutako prozeduretako batzuk aldi baterako eta salbuespenez kudeatzen jarraitu zuten, gehienez ere 2015eko abenduaren 31 arte.

Hori dela eta, 2016eko urtarrilaren batean Kabiak bere gain hartu zituen osotasunean lau egoitzen kudeaketa, horrek zituen ondorioekin: erabiltzaileen ekarpenen kudeaketa egin, Zumaiako hiru langileak Kabiako plantillakoak izatea, zerbitzu kontratu guztien kudeaketa, etab. Aldaketa horiek egin ahal izateko erabiltzaile eta bere familiak, hornitzaile eta zerbitzu enpresei zuzendutako komunikazio plan bat bideratu zen. Halaber, aplikazioak eta lan prozesuak egokitu behar izan dira ere bai.

Villabonako egoitzaren kasuan, 2015ean Villabonako adineko pertsonentzako egoitza zentroetan zerbitzu soziosanitarioak eta laguntza zerbitzuak kontratatzeke deialdia atzera botatzearen ondorioz, Villabonako Udalarekin adostasun batera iritsi zen: Villabonako udalak ordura arte ematen ari zen zerbitzuekin jarraituko zuen, egindako lan horren truke Kabiak kopuru bat ordaindu ziolarik. Egoera hori urriak 1 arte jarraitu zuen (kontratu berria abian jarri zen arte).

Gainontzeko egoitzei dagokienez, Elgoibarko San Lazaroko kontratua kudeatzen ari zen Kabia 2015eko abuztutik aurrera. San Lazaroko gainontzeko eginkizun guztiak eta Azkoitiako egoitzako zerbitzuak 2016eko urtarrilak 1etik hartu zituen bere gain Kabiak.

2016ean Kabiari ez zitzaion bestelako egoitzarik kudeatzeko agindurik eman Batzar Nagusiak emandako ebazpena betetze aldera.

2.1. BATZAR NAGUSIETAKO MANDATUA

2015eko azaroak 2ko 11/2015 Gipuzkoako Batzar Nagusietako ebazpenean, Kabia organismo autonomorako aurreikusita dagoen egutegiari buruzkoan, honakoa eskatu zitzaion Aldundiari:

“Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatzen diote errespetu ditzala gaur egun udalek kudeatzen dituzten 16 udal-egoitza Kabian sartzeko lortutako akordioak, hau da, Andoain, Arrasate, Azkoitia, Bergara, Villabona, Eibar, Elgoibar, Erreterria, Hernani, Irun, Lasarte-Oria, Oñati, Ordizia, Pasaia, Tolosa eta Zumaiarenak. Horretarako, bederatzi hilabeteko epean, zeina beste hiru hilabetez luzatu ahal izango den, Foru Aldundiak, tartean dauden udalekin akordioak egin eta gero, Batzar Nagusietako Gizarte Politikako Batzordeari aurkeztuko dio egoitzak Kabian txertatzeko eta bateratzeko prozesua eta aurreikusitako egutegia.”

Gipuzkoako Batzar Nagusiek egindako eskaerari aurre egite aldera proiektu bat abian jarri zen 2015eko azaroan, adostasuna eta elkarlana oinarri nagusi izan zituena.

2.2. BATERATZE PROZESUA, EREDUA, EGUTEGIA ETA PLAN EKONOMIKOA ADOSTEKO LANKETA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatu zioten egoitzak Kabian txertatzeko eta bateratzeko prozesua eta aurreikusitako egutegia aurkeztea gehienez hamabi hilabeteetara luzatu zitekeen epe baten

barruan (2015eko azarotik hasita). Eskaera hori gauzatzeko, “Kabiako estrategia eta eredia denon artean, udalak eta Aldundia elkarlanean, eraikitzeko” proiektuari hasiera eman zitzaion; Kabiako plan estrategikoa, eredia, plan ekonomikoa, eta udal egoitzak Kabian sartzeko egutegia eta bateratze prozesuak definitu eta adosteko.

Proiektua aurrera eramateko, Talde Tekniko Erreferentea (TTE) izeneko lan taldea osatu zen, udal egoitzetako (4 ordezkari), Gizarte Politika Departamentuko (4 ordezkari) eta Kabiako 2 ordezkari osatua. Lan talde horrek, 2015eko abenduaren 4ean lehen bilera egin zuen eta azkena 2016ko urriak 11an. Proiektuan PKF ATTEST enpresaren aholkularitza teknikoa jaso zen.



Prozesu horren ondorioz lortutako emaitzak ondorengoak izan dira:

1. Kabiako 2016-2019 Plan estrategikoa.
2. Kabiako 2016ko kudeaketa plana.
3. Kabiako eredu integralaren definizioa: eredu asistentziala eta antolaketa eredia.
4. Kabiaren barruan ez dauden egoitzen bateratze txostenak. Bateratze prozesua ahalbidetzeko txostenak dira, udalekin adostu direnak.
5. Adostutako eredia, egutegi proposamena eta plan ekonomikoa jasotzen dituen txostena. Aldundiko Diputauten Kontseiluak onartu zuen 2016ko urriak 11an.

a) Kabiako misioa, bisioa eta plan estrategikoko ildoak.

Bereziki garrantzitsua da nabarmentzea, egindako lan honen ondorioz, 2016-2019 epealdirako Kabiaren misioa eta bisioa zein den adostu zela Plan Estrategikoaren eremuan:

Misioa

Kabia Gipuzkoako Foru Aldundiko foru organismo autonomoa da, legearen eskumen esparruan agintzen dizkion zerbitzuak eta funtzioak kudeatu, eman eta exekutatzeko duena da.

Gure misioa da Gipuzkoako mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen gure ardurapean dauden egoitzetan eta eguneko zentroetan zaintza eta arreta ematea: kalitatezko zaintza, arreta integrala eta pertsonalizatua erabiltzaileen beharrei erantzuteko, bere eskubideak bermatuz; kualifikatuta, motibatuta, inplikaturik eta zerbitzuaren etengabeko hobekuntzan parte-hartzen duen talde profesionalarekin; erabiltzaileen eta familien harreman eta parte-hartzea bermatuz eta sustatuz.

Bisioa

Gipuzkoako adinekoen egoitzen eta eguneko zentroetan erreferentzia izatea:

- eskaintzen den zerbitzuen kalitate mailan,
- erabiltzaile eta familien asebetetze mailan,
- lan taldearen konpromisoa eta profesionaltasunean,
- zerbitzua eta kudeaketa eraginkorrean,
- gizartetik jasotzen dituen errekonozimenduan.


Definitutako misioa aurrera eramateko, 2016-2019 plan estrategikoko ondorengo bost ildoak zehaztu ziren:

1. **ERABILTZAILEAK:** Erabiltzailea erdigunean duen eredia sortu eta aplikatu. Erabiltzaileen autonomia pertsonala eta duintasuna bultzatu, beraien eskubideak errespetatuz eta bermatuz.
2. **PERTSONAK (LANGILEAK):** Pertsonen parte hartzea eta motibazioa indartu: prestakuntza, profesionaltasuna, motibazioa, lantaldea, helburu komunak, jarduera etikoa.
3. **KUDEAKETA:** Etengabeko hobekuntza asistentzia zerbitzuan, erakundearen kudeaketa eta emaitzetara zuzendutako erakundea, komunikazio irekiarekin eta gardena.
4. **IRAUNKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA:** Erakundea eta bere jardueren iraunkortasun soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa eta horretarako ezinbestekoa den berrikuntza.
5. **GIZARTEA:** Aukera berdintasunarekiko, emakume eta gizonaren arteko berdintasunarekiko, hizkuntz berdintasunarekiko, gardentasunarekiko konpromisoa eta interes taldeekin aliantzak garatu.


b) Kabiko eredia: asistentziala eta antolaketakoa.

Eredu asistentziala zehazteko garaian hiru arlo kontuan izan dira: alde batetik, 38/2007 Foru Dekretua mendeko adineko pertsonentzat egoitza zerbitzuak hitzartzeko bete beharreko baldintzak zehazten dituen; lan taldeko kideen ekarpenak; eta bestetik, udal egoitza bakoitzean ematen den arreta eta zerbitzuaren ezaugarriak. Horren arabera, eredia adosterakoan irizpide integratzaile, zabal eta malgu bat definitu da, egoitza guztiak ereduaren barnean eroso egon daitezen. Egoitzak Kabian sartzen diren heinean, prozesuak egokitzeari eta bat egiteari ekingo zaio, datozen urteetako lana eta ahalegina izango delarik.

Kabia foru organismo autonomoak, bere egoitzak kudeatzeko, zerbitzu zentralak izango ditu lan zentroa Donostiak izango dutenak. Beraz, egun, egoitzetan edo/eta udaletako egituren bidez egiten diren hainbat eginkizun, Kabiako zerbitzu zentraletan egingo dira.



Kabiak egoitza guztiak bere gain hartzen ditueneko, eta aurretik aipatutako banaketa horretan oinarrituz, Kabiako zerbitzu zentraletako antolaketa eredia, arloen arabera ondorengo izatea aurreikusten da.



Antolaketa eredu orokor hori osatzen joateko, lanpostuen zerrenda aldatu zen GT Juridiko lanpostua sortzeko.

c) Udal egoitzak Kabiara sartzeko egutegia.

Urtero lau egoitza integratuko direla aurreikusi, adostutako egutegia ondorengoa izan zen:

| UDAL EGOITZA | EGUTEGIA |
|--------------|----------|
| ANDOAIN | 2017 |
| BERGARA | |
| ORDIZIA | |
| LASARTE-ORIA | |
| OÑATI | 2018 |
| ERRETERIA | |
| TOLOSA | |
| ARRASATE | |
| PASAIA | 2019 |
| EIBAR | |
| IRUN | |
| HERNANI | |

3. KUDEAKETA PLANA

2016ko kudeaketa planaren ekintza nagusienak udal egoitzak ezagutzea (informazioa eta dokumentazioa biltzea), Kabiako eredu definitzea eta integratutako egoitzen bateratze prozesuari ekitea izan dira, horretarako beharrezkoak diren kudeaketarako aplikazio, sistemak eta prozesuak egokitu direlarik.

Kudeaketa planean guztira 68 proiektu aurreikusi ziren. Ildoz ildo aztertuta, betetzea maila kudeaketa planaren betetze maila %97koa izan da.

Kudeaketa planeko ekintzen betetze maila ulertzeko, koloreek ondorengo esanahia dute:

■ Ez da egin ■ Hasi da, amaitu gabe ■ Egina

| 2016KO HELBURUAK | PROIEKTUAK | EKINTZAK | BETETZEA MAILA |
|---|---|---|--|
| ERABILTZAILEAK | | | |
| Kabian dauden egoitzetarako jarraibide komunak definitu | Lan prozedurak bateratzen hasi | 1.- Prozesu Mapa definitu 2.- Prozesu asistentzialak definitzen hasi | ■ Prozesu mapa definitu da. ■ Prozesu asistentzialen bateratzea ez da hasi. |
| | Kontratu eredia egokitu | Kontratuak sinatzeko prozedura zehaztu | ■ Zehazten hasi, bukatu gabe. |
| Erabiltzaileen arteko bizikidetzaren hobetua | Kabiaren eredia definitu | Kabiaren eredia definitu | ■ Kabiako eredu asistentziala adostu eta onartu da |
| Erabiltzaileen familiarekin harremanak areagotu | Kabiaren eredia definitu | Kabiaren eredia definitu | ■ Kabiako eredu asistentziala adostu eta onartu da |
| Egoitzaren parte direla sentiarazi erabiltzaileari | Erabiltzailearen parte hartzea landu | Eabiltzaile eta familiaren parte hartzeko bideak zeintzuk diren identifikatu egoitza bakoitzean | ■ |
| Osasun Sailarekin egoitzetako eremu soziosanitario komuna errebisatu | Botiken kudeaketa egoitza bakoitzean nola egiten den identifikatu | Informazioa jaso | ■ |
| | Gizarte Politikako Dptuari Kabiak informazio zehatza eman. | Ezinduen eta desgaituen laguntzako zerbitzuarekin koordinatu eta informazioa partekatu | ■ |
| Kabiako egoitza guztiak Osakidetzako medikua edukitzea eta talde multidisziplinarretan txertatuta edukitzea lortu | Osakidetzarekin lanketa tekniko-politikoak bultzatu. | 1.- Zein egoitzek duten mediku propioa eta zeintzuk ez identifikatu | ■ |
| | | 2.- Departamenduarekin batera eskaera Osakidetzara bideratu | ■ |
| Erabiltzaileei eskeinitako zerbitzuak indartu | Irizpide bateratua definitu eta aurrera eraman | Ereduan finkatuko da. | ■ Kabiako eredu asistentziala adostu eta onartu da |

| 2016KO HELBURUAK | PROIEKTUAK | EKINTZAK | BETETZEA MAILA |
|--|--|---|--|
| Erabiltzaileen likidezia faltaren egoerari erantzuna eman | "Protocolo de impago" berrikusi eskatu Departamentuari | Egoitza bakoitzan dagoen ekarpenak ez ordaindu izanaren kopurua lortu | Ez da guztiena jaso |
| Erabiltzaileen profilaren arabera beharrak zeintzuk diren jakin | Erabiltzaile profil desberdinen beharrak identifikatu | Erabiltzaile kopurua egoitza bakoitzean identifikatu: Psikosoziala | |
| PERTSONAK (LANGILEAK) | | | |
| Kabian sartzen diren langileen integrazioa lortu Ereduarekin bat eginez | Langile propio eta azpikontratauen egoera legalaren azterketa juridikoa egin. | Langile propio eta azpikontratauen egoera legalaren azterketa juridikoa egin | |
| | Udala-GFA-ren arteko hitzarmenean isladatu azterketaren emaitzak. | Urtean zehar Udala eta GFA-ren artean sinatzen diren hitzarmenetan isladatu azterketaren emaitzak | Hitzaizarmenik ez da sinatu |
| | Langileen harrera protokoloa landu | Langileen harrera protokoloa duten egoitzak identifikatu eta protokoloak lortu bateratze prozesua hasteko | |
| Egoitza bakoitzaren langileen kosteak identifikatu eta katalogoarekin alderatu | Egoitza bakoitzaren langileen kosteak identifikatu eta katalogoarekin alderatu | | |
| | Zerbitzu zentraletako langile beharrak eta egitura definitu | Langile beharrak eta organigrama definitu | |
| | Lan hitzarmena definitzeko urratsak eman | Lan hitzarmenaren lehen zirriborro bat garatu | |
| Kabiako langileen ordezkaritza antolatu | Legeak eskatzen dituen langileen ordezkaritza bermatu | | Ez da ordezkaritza antolatu behar izan |
| Lantaldeak sortu | Egoitzetako koordinazio gunetako sistematika ezagutu | Informazioa lortu | |
| Langile plantilen ezaugarriak identifikatu | Langileen adinak identifikatu | Langileen adinak identifikatu | |

| 2016KO HELBURUAK | PROIEKTUAK | EKINTZAK | BETETZEA MAILA |
|--|--|--|--------------------------------------|
| Langileen trebetasuna handitu eta erabiltzaileen beharretara bideratu | Langile propioen prestakuntza irizpideak definitu | Prestakuntza plana definitu Departamentuarekin koordinatuta | |
| Langileen arriskuen prebentzioko plana burutu | Kabiako zerbitzu zentraletako prebentzio plana garatu eta gauzatu | Kabiako zerbitzu zentraletako prebentzio plana garatu eta gauzatu | |
| Barne komunikazio gardena lortu | Sartuko diren egoitzen langileekin komunikazio plana diseinatu eta aurrera eraman | Komunikazio plana garatu | |
| | Plan estrategikoa eta kudeaketa planaren egoera sistematikoki langileei komunikatu | Komunikazio plana garatu | |
| Kabiako langileen konpromezua eta motibazioa indartu | Langileen asebetetze inkesta egin | Langileen asebetetze inkesta egin | |
| KUDEAKETA | | | |
| KABIAREN kudeaketa eredu eta eredu asistentziala finkatu eta GFAREN 2015-2019 Kudeaketa Estrategiko Planarekin bat egin | KABIAREN kudeaketa eredu eta eredu asistentziala finkatu | eredu asistentziala finkatu | |
| | | kudeaketa eredu finkatu | |
| Udal egoitzak KABIAN sartzeko egutegia eta egoitza bakoitzak egin beharreko bateratze prozesua proposatu egoitza bakoitzaren egoera kontutan edukita | Udal egoitzak KABIAN sartzeko egutegia eta egoitza bakoitzak egin beharreko bateratze prozesua proposatu egoitza bakoitzaren egoera kontutan edukita | Udal egoitzak KABIAN sartzeko egutegia eta egoitza bakoitzak egin beharreko bateratze prozesua proposatu egoitza bakoitzaren egoera kontutan edukita | |
| Plaza publikoen okupazioa maximizatu baliabide publikoen eraginkortasuna lortzeko | Hitzartu gabeko oheak hitzartzeko eskaera hasi Departamenduari | Lasarte eta Villabonako baimenduta dauden egoitza eta eguneroko zentruen plaza guztiak hitzartu | Lasartekoa 2016ean, Villabona 2017an |

| 2016KO HELBURUAK | PROIEKTUAK | EKINTZAK | BETETZEA MAILA |
|--|--|---|----------------|
| Aurrerabide kudeaketa eredura egokitu | Kabiaren kudeaketaren sistema finkatu | Egiten ikasi prozesuan parte hartu Aurrerabide ereduan Kabian finkatzeko. | |
| Departamentuarekin koordinatu eta irizpideak partekatu | Koordinazio guneak definitu | | |
| | Extranet, Dacoper... informazioa partekatu Departamentuarekin | | |
| | Zeharlerroko Batzordeetan parte hartu | Eskaerak egin | |
| Kabiako zuzendaria duten egoitzekin koordinazioa handitu | Koordinazio guneak definitu | | |
| Kabiako egoitzetan kudeaketa integrala duten enprekin koordinazioa handitu | Koordinazio guneak definitu | | |
| Kabian sartzeko egoitza duten udalekin koordinazioa handitu | Koordinazio guneak definitu: Udalekin komunikazio tresnak sortu | | |
| Departamenduarekin araudi aldaketaren araudi aukerak hausnartu | Araudia eguneratzeko eragile lanak hasi Departamentuarekin | Aldundiaren araudia egokitu Zerbitzu karterara, 185/2015 Dekretua (Kabiak parte hartu Dptuarekin batera Kabiari dagozkion zerbitzuetan) | |
| Kudeaketa ekonomiko egokia egin eta jarraipena egin helburuak lortzeko | Udal egoitzak Kabian sartzeko egutegia betetzeko behar ekonomikoak definitu | Udal egoitza bakoitzaren behar ekonomikoak aztertu eta kuantifikatu.. | |
| | Emaizetara zuzendutako aurrekontua eredura egokitu | Aurrekontuaren jarraipen zorrotza egin | |
| | | Emaizetara zuzendutako aurrekontura egokitu | |
| | Gobernu Batzordeko eskumen batzuk Lehendakari eta/edo gerenteari pasatzeko hausnarketa egunerokotasunean | Lehendakari, Lehendakari ordea eta gerentearen arteko eskumenak delegatzeko azterketa egin, onartu eta aplikatu. | |

| 2016KO HELBURUAK | PROIEKTUAK | Ekintzak | BETETZEA MAILA |
|--|---|--|----------------|
| | eraginkorrakoak izateko | | |
| Emaitzetara zuzendutako kudeaketa | Asebetetze inkestak: erabiltzaile, familia eta langileak | Kabiako egoitzetatik 2016. urtean asebetetze inkesta egiten direnak lortu | |
| Egoitzetatik jasotzen diren datuak beharra homogeneizatu | Egoitzetatik jaso beharreko adierazle komunak finkatu . | Egoitzetako adierazleak jaso (galdetegia bitartez), analisia egin eta adierazle kritiko komunak finkatu. | |
| Egoitzen Kabiarekiko dependentzia organikoa eta funtzionala eta egoitzaren autonomia finkatu | Botikoen koordainketa eta tarifatik kanpoko zerbitzuak kudeatzeko lankarga murrizteko KABIAn zentralizatu/laguntzeko aukerak aztertu. | Botikoen koordainketa zentralizatua egiteko azterketa egin eta aplikatu | |
| | Zerbitzu zentralen eginkizunak definitu: kontabilitatea, langileen kudeaketa, ... | Tarifatik kanpoko zerbitzuak nork kudeatzen duen azterketa egin eta aplikatu | |
| | | | |
| Kontratuen kudeaketa egin | Kontratazio deialdien urteko plana egin | Kontratazio deialdien urteko plana egin eta kontratuetan gizarte klausulak txertatu | |
| | Pleguetan adostutako Pertsonalari dagozkion klausulen jarraipen zorrotza egin eta beharrezko neurriak hartu | | |
| | Kontratazio zentralarekin koordinatu eta jarraipena egin | | |
| Kabiarentzako behin betiko egoitza lortu | Kabiarentzako behin betiko egoitzaren azterketa egin | Egoitzaren beharrak finkatu | |
| | | Egoitza lortzeko lanketa GP Departamenduarekin egin | |
| Segurtasun juridikoa bermatu | Kabian dauden egoitzen legearekiko egoeraren diagnostikoa egin | Legedia garrantzitsuenaren check list bat osatzen hasi. | |

IRAUNKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA

| 2016KO HELBURUAK | PROIEKTUAK | EKINTZAK | BETETZEA MAILA |
|--|---|---|---------------------------------|
| Kabiako ingurumenaren kudeaketaren eredia finkatu eta aurrera eraman | Kabiako ingurumenaren kudeaketaren eredia finkatu 2016 | Egoitzen ingurumen kudeaketako infoa lortu | |
| Kabian dauden egoitzen inbertsio beharren azterketa sakona egin | Inbertsioetako kudeaketa prozedura definitu Departamentuarekin batera | | |
| | Hitzarmenetan, sartuko diren egoitzen inbertsio beharrak jaso 2016 | | |
| Kabiako egoitzetan IKT arkitektura komuna definitu eta egokitu | Egoitzaren informazioa sistemen eta sare informatikoaren egoeraren diagnostikoa egin | Galdetegiatic informazioa lortu eta diagnostikoa egin. | |
| | Kabiako egoitzak Gipuzkoa Sarean (IZFE-ko sisteman) sartu ala ez aztertu. | Telekomunikazio irizpideak finkatu. | |
| | Kontabilitate aplikazioa (Sareko) egokitu | | |
| Egoitzetako kudeaketa egiteko informazio sistema aukeratu | Egoitzetako kudeaketa egiteko informazio sistema aukeratu | Egoitzek dituzten informazio sistemak ezagutu eta honen arabera erabakia hartu. | |
| Kabiako egoitzetako informazio segurtasuna bermatu | Kabiako egoitzen informazio segurtasun egoeraren diagnostikoa egin | Kabiako egoitzen informazio segurtasun egoeraren infoa jaso | |
| | Kabiako LOPD egoera egokitu | Kabiako egoitzetako fitxategiak definitu eta erregistratu. | |
| I+D+i taldeak sortu praktika onak partekatzeko eta berrikuntza aukerak aztertu, ezarri eta ebaluatzeko | Talde tekniko erreferentea martxan jarri eta mantendu | Urtean zehar talde tekniko erreferentearen gunearen aktibitatea mantendu. | |
| KABIako egoitzetako mantentze plan komuna definitu | Zerbitzu Kritikoak zein diren finkatu behar da eta zerbitzu bakoitzarentzako protokologoak finkatu. | Zerbitzu kritikoak zein diren finkatu. | GFako mantentze liburua oinarri |

| 2016KO HELBURUAK | PROIEKTUAK | EKINTZAK | BETETZEA MAILA |
|---|--|--|--|
| GIZARTEA | | | |
| Kabiako web gunean gardentasun irizpideak definitu eta aurrera eraman | Gardentasun eskakizunak bete | Kabiako gardentasunaren kudeaketako infoa jaso | |
| Kabiako kode etikoa | Kabia GFako kode etikoko balioak eta printzipioak landu | GFA-ko kode etikoa ezagutu eta bete | |
| Hizkuntza berdintasuna KABIAN txertatu | Hizkuntza irizpideak ereduari, kudeaketan eta lizitazioetan txertatu | Hizkuntza irizpideak ereduari, kudeaketan eta lizitazioetan txertatu | |
| | Erabilera irizpideak Adostu eta zabaldu | Jarraibidea egin | Jarraibidea egiteko proiektuari hasiera eman zitzaien abenduan |
| | Aurrerabide-Bikain eredura egokitu | Kudeaketa plana Bikain eredura egokitzen hasi | Bikain berriaren esperientzia pilotoa egiten hasi zen abenduan |
| Emakume eta gizonen berdintasuna KABIAN txertatu | Berdintasuna Kabiaren ereduari, kudeaketan eta lizitazioetan txertatu | | |
| Kabian dauden egoitzetako Udalekin eta udaleko herritarrekin harremanak landu eta sustatu | Kabian dauden egoitzetako Udalekin eta udaleko herritarrekin egoitzak egiten dituzten eginkizunak identifikatu | Infoa jaso galdetegiaren bitartez eta aztertu. | |
| Kabian antzeko egitura dituzten erakundeekin elkarlana bultzatu | Kabian antzeko egitura dituzten erakundeekin topaguneak sortu. | Antzeko erakundeak identifikatu. | |
| Kabiako egoitzetan ikasleen formazio praktikoa egoitzetan egiteko aukera eman | Kabia eta Udal egoitzetan ikasleen formazio praktikoa egoitzetan egiteko aukera eman | Infoa jaso galdetegiaren bitartez eta aztertu | |

4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA

4.1. GASTUAK

Kabia foru organismo autonomoan, 2016. urtean zehar egindako gastuen banaketa beheko taulan ikus daiteke.

| KAPITULUA | HASIERAKO AURR. | BEHIN BETIKO. AURR. | ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK | |
|------------------------|------------------|---------------------|------------------------|-------------|
| | | | € | % |
| 1. Langileria gastuak | 436.923 | 436.923 | 338.888 | 77,6 |
| 2. Ohiko gastuak | 7.192.001 | 7.192.001 | 6.805.591 | 94,6 |
| 6. Inbertsio errealak | 95.137 | 95.137 | 73.808 | 77,6 |
| Gastuak Guztira | 7.724.061 | 7.724.061 | 7.218.287 | 93,5 |

Lehenengo kapituluan ez da aurreikusitako guztia gastatu, besteak beste sortutako lanpostuak ez direlako bete.

Bigarren kapituluan egindako gastuaren proportzioa, lehenengo eta seigarrenean egindakoa baino altuagoa da, ia %95ekoa.

Seigarren kapituluan egindako gastua aurrekontuaren %78koa izan da. Aurrekontu horrekin egindako inbertsioak honakoak izan dira:

| ONDASUNA (KOPURUA) | LAN ZENTROA | KOSTUA |
|---------------------------------|--------------------|---------------|
| SAGU ETA TEKLATUA HARIGABEA (1) | Zerbitzu Zentralak | 52 |
| ORDENAGAILUAK (2) | Zerbitzu Zentralak | 1.004 |
| PANTAILA (2) | Zerbitzu Zentralak | 327 |
| IZFE - APLIKAZIO INFORMATIKOAK | Zerbitzu Zentralak | 24.980 |
| LEHORGAILUA (1) | Villabona | 5.203 |
| GARBIGAILUA (1) | Villabona | 13.068 |
| MOTOREA ETA MANDOA (1) | Zumaia | 174 |
| GARABI-BATERIA (1) | Zumaia | 422 |
| HOZKAILUA (1) | Zumaia | 549 |
| LEHORGAILUA (1) | Elgoibar | 5.203 |
| GARBIGAILUA (1) | Elgoibar | 13.068 |
| MIKROUHIN-LABEA (1) | Elgoibar | 544 |
| KOLTXIOAK (48) | Elgoibar | 6.493 |
| BURUAZPIKOAK (48) | Elgoibar | 581 |
| JANARIA BANATZEKO KARROAK (3) | Elgoibar | 2.139 |
| GUZTIRA | KABIA | 73.808 |

Egindako inbertsioez gain, hainbat konponketak egin dira egoitzetan. Villabonako Santiago egoitzan, adibidez, banatutako bi gune (egongela eta meza emateko gela) balioanitza bihurtze aldera, ezarritako tabike mugikor bat aipatzekoa da.

4.2. DIRU SARRERAK

Kabiak, 2016.urtean izandako diru sarrerak, beheko taulan jasotzen dira:

| KAPITULUA | HASIERAKO AURR. | ESKUBIDE DEUSESTATUAK | | ONART. ESKUBID. GARBIAK | | BILDUTAKO GARBIA | |
|----------------------------|------------------|-----------------------|------------|-------------------------|-------------|------------------|-------------|
| | | € | % | € | % | € | % |
| 3. TASAK ETA BESTELAKOAK | 2.821.916 | 18.003 | 0,6 | 2.753.604 | 97,6 | 2.753.604 | 97,6 |
| 4. TRANSF. ARRUNTAK | 4.807.008 | 0 | 0,0 | 4.544.210 | 94,5 | 4.544.210 | 94,5 |
| 7. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK | 95.137 | 0 | 0,0 | 47.568 | 50,0 | 47.568 | 50,0 |
| SARRERAK GUZTIRA | 7.724.061 | 18.003 | 0,2 | 7.345.382 | 95,1 | 7.345.382 | 95,1 |

Hasierako aurrekontuan egindako aurreikuspenekiko, Kabiak %95a bildu du. Jasotako zerbitzuak direla eta, erabiltzaileen aldetik jaso beharreko guztia jaso du Kabiak. Urtean zehar 18.003 euroko itzulketak egon arren, urratsak eman dira onartutako eskubide guztiak biltzeko.

Transferentzia arrunten bidez (tarifak eta zerbitzu zentraletako gastuak) Aldunditik jasotzen den kopuruari dagokioez eta Azkoitiako udaletik tutoretzapeko apartamentu zerbitzuagatik jasotakoagatik, aurreikusitakoaren %94,5 jaso da. Zerbitzu zentralen gastuetarako aurreikusitako beharrari dagokionez, aldiz, Kabiak ez du eskatu beharrezkoa ez zuelako. Helburu horretarako aurreikusita zeuden 525.795 euroetatik erdia bildu da (263.296 euro).